

## AZAROAREN 25eko ERAKUNDE ADIERAZPENA

### “EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”

Azaroaren 25a dela eta, data horixe izendatu baitu Nazio Batuen Erakundeak “Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna”, gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenekiko, zeinahi ere den (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), hala nola sexismo-modu guziekiko, barne daudelarik finenak eta normalizatuenak, hala nola sexuen araberako rol estereotipatuak ezartzea edo bizitzaren esparru askotan emakumeak ikusgai ez egotea, besteak beste. Berretsi nahi dugu, era berean, arazo estruktural baten aurrean gaudela, eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunik eza oinarri duenez, ezinbestekoa dela berdintasun-politikak baliatzea, aditurek zein nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezalaxe.

Emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egituran bertan oinarritzen da; izan ere, oraindik ere, aukera desberdinak eskaintzen zaizkie emakumezkoei eta gizonezkoei, eta oraindik ere jaiotza-sexuaren arabera pertsonen askatasuna mugatzen da. Saiatu behar dugu bestelako gizartea eraikitzen, non pertsona guziek askatasuna izango duten nahi duten bezalakoak izateko, non aukera izango duten potentzialtasun osoz garatzeko, eta non giza eskubideei begira berdintasuneko eta begirunezko tratua jasoko duten.

Gure xedea da pertsona guziekiko tratu onak bermatuko dituen gizarte batean bizitzea, urrats bat gehiago emango duen gizartea eta, emakumeenganako indarkeriaren aurka agertzearekin batera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde argiro azalduko den gizartea. Gure aldarrikapena da pertsonen arteko harremanak errespetuan, autonomian eta berdintasunean oinarrituko dituen gizartea. Errespetatzea ez da bakarrik ez erasotzea; aitzitik, berorren esanahia ere da pertsona bakoitzak, berdintasunik ezak dakin mugarik gabe, bere bizitza-ibilbidea irudikatu ahal izateko bermea edukitzea.

Erakundeetatik gure ardura sozial eta politikoa onartu behar dugu, tratu onak sustatuko dituen gizartea eraikitzeko orduan, eta horretarako gure aurreiritzia, rolak eta eguneroko jarrerak gure baitatik berrikusten hasi.

Hego Euskala Herrian, biolentzia matxistak behera egin beharrean, 2015 urtea amaitzean dagoela, nabarmen egin du gora aurten. Ugariak ari dira izaten eraso sexistak eta erailketak ere.

Biolentzia matxistaren azken estadioek, bortxaketa, jipoitzeak eta erailketek gora egin duten moduan, zeharkako beste biolentzia matxistek, eguneroko mikrobiolentziek ere, gora egin dute, eta herritarren artean barneratu eta normalizatzeko arriskua ere agertu da.

Horrela, 2015 urtean asko izan dira berriro bortxaketa saiakerak, neska eta emakumeen bizitzaren gaineko kontrolak (kontrol ekonomikoak, fisikoak, sexualak, afektiboak, sozialak, kulturalak), emakume ugarik jasan behar izan dute eguneroko jazarpenik (irainak, bazterkeriak, gutxiestea) eta bestelako erasoak (prekarizazio laborala, enplegurik eza, zaintza lanen karga isila). Eguneroko mikrobiolentzia barneratuak eta normalizatuak daude jendarte eredu patriarkalaren baitan.

Premiazkoa da indarkeria sexistarekin harremana duten kasuak eta salaketak egunerokotasun normalizatutik desagerraztea. Jai- zein jolas-esparruetan gure askatasuna baldintzatzen duten jazarpen eta gehiegikeria sexistek hor jarraitzen dute. Halaber, kezkagarriak dira lan-esparruan jazarpen sexistari buruz dauden datuak. Sexu ezberdineko pertsonen arteko botere harremanak eta gazte belaunaldien artean agertzen diren balore patriarkalak gero eta gehiago dira, eta, aldi berean, gazte askok beraien kideen aurka indarkeria erabiliz haien arteko harreman desorekatuak eraikitzen dituzte.

Jendarte eredu ezinbestean aldatu behar dugu biolentziarekin amaitu ahal izateko. Biolentzia horiek guztiak, makroak zein mikroak, desagerrazteko modu bakarra, berau sostengatu, zuritu edo babestu dezakeen jardun oro alboratuz lortuko da.

Eta zeregin hau, ezinbestean hartu beharreko konpromiso hau, jendartea osatzen dugun eragile guztiok hartu behar dugu, bestela biolentzia matxista sostengatzen jarraituko dugu. Guztion ardura baita norberaren eragin esparrutik aurre egitea sor edo babes dezakeen biolentzia matxista ororekin amaitzea: erakunde publikoak, hezkuntza eragileak, komunikabideak, lan esparruko eragileak, kultura eragileak, ekonomia eragileak. Baina norbanakoek, familiek, lagunarteeik, kolektiboek eta arduradun publikoek ere erantzukizun zuzena dute.

Biolentzia matxistari aurre egiteko moduak ere onartu eta babestu behar dira, helburua bakarra izanda borroka moduak anitzak behar baitira izan: autodefentsa feminista bide bat da, baina Beldur Barik ekimena, edo herrietako jaien testuinguruan sortu diren performance zein kale ekintzak, elkarteko zein auzoetatik burutzen diren saioak, guztiak dira balekoak, guztiak babestu beharrekoak.

Hori dela eta, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, Euskal Herria feminista eta ekitatibo baten aldeko gure aldarrikapenak inoiz baino ozenago entzun behar dira, hori eraiki ezean ezinezkoa izango baitzaigu egiazko demokrazia erdiestea. Hori dela eta, Donostiako Udalak honako KONPROMISOA hartzen du:

- **Donostiako Udalak gure eskuduntzen esparruan udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratu onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egitearen konpromisoa hartzen du.**
- **Donostiako Udalak borroka feministarekin daukan konpromisoa berresten du, indarkeriarik gabeko jendarte demokratiko eta burujabea eraikitzeko bide eta tresna gisa.**
- **Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari dei egiten die, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrekontu partidak handitu, berdintasun zuzendaritzak indartu, epaitegietako genero unitateak doitu eta legedia errebisatzeko konpromisoa har dezaten.**
- **Donostiako Udalak herritarra berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak hartzen ditu. Kompromiso hau urteko egun guztietara zabal dezatela eskatzen die. Hala nola, azaroaren 25an dela eta burutuko diren ekitaldietan edo eta gazteen arteko prebentzio eta hezkuntzarako ‘Beldur Barik’ izeneko ekimenean.**

## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE 25 DE NOVIEMBRE

### “DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES”

Con motivo del 25 de Noviembre, fecha declarada por la Asamblea General de Naciones Unidas como “Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres”, manifestamos nuestro firme rechazo hacia cualquier expresión de violencia contra las mujeres en todas sus dimensiones (física, psicológica, sexual, simbólica...), así como a las distintas formas de sexismo, incluidas las más sutiles y normalizadas, como la asignación de roles estereotipados por sexos o la invisibilización de las mujeres en los distintos ámbitos de la vida, entre otras. Reafirmamos, asimismo, que nos encontramos ante un problema estructural que teniendo como base la desigualdad entre mujeres y hombres requiere un abordaje a través de las políticas de igualdad, tal y como recomiendan numerosas personas expertas y organismos internacionales.

La violencia contra las mujeres se asienta en la misma estructura de la sociedad, que aún ofrece diferentes oportunidades a mujeres y a hombres y que aún limita la libertad de las personas dependiendo del sexo con el que hayan nacido. Debemos esforzarnos en construir una sociedad en la que todas las personas tengan la libertad de ser como quieran ser, la oportunidad de desarrollarse en todo su potencial y en la que reciban un trato igualitario y respetuoso con los derechos humanos.

Aspiramos a vivir en una sociedad que garantice los buenos tratos para todas las personas, una sociedad que dé un paso más y además de mostrarse contra la violencia hacia las mujeres, se manifieste claramente a favor de la igualdad de mujeres y hombres. Abogamos por una sociedad en la que las relaciones entre las personas se basen en el respeto, la autonomía y la igualdad. Respetar no sólo significa no agredir, significa también garantizar que cada persona pueda dibujar su trayectoria vital sin la limitación que supone la desigualdad.

Desde las instituciones debemos asumir nuestra responsabilidad social y política en la construcción de una sociedad que fomente los buenos tratos, empezando por el ejercicio personal y colectivo de revisar nuestros prejuicios, roles y actitudes cotidianas.

En Euskadi, en lugar de disminuir la violencia machista, ahora que está a punto de finalizar el 2015, esta ha aumentado considerablemente. Son frecuentes los ataques sexistas y los asesinatos.

Así como el aumento de los últimos estadios de la violencia machista, es decir, las violaciones, las palizas y los asesinatos, otras violencias machistas transversales, así como las microviolencias cotidianas, también han aumentado, y también ha surgido el riesgo de que la ciudadanía las interiorice y las normalice.

Así, durante el año 2015 han sido numerosos los intentos de violación, el control sobre la vida de las chicas y las mujeres (control económico, físico, sexual, afectivo, social, cultural); muchas mujeres han sufrido acosos cotidianos (insultos, discriminaciones, menoscobos) y otro tipo de agresiones (precarización laboral, desempleo, carga silenciosa de las labores de cuidado). Las microviolencias cotidianas están interiorizadas y normalizadas dentro del modelo de sociedad patriarcal.

Es preciso que los casos y las denuncias que tengan relación con la violencia sexista desaparezcan de la cotidianeidad normalizada. Se mantienen los acosos y abusos sexistas que condicionan nuestra libertad en los ámbitos festivos y de ocio. Asimismo, son preocupantes los datos referentes al acoso sexista en el ámbito laboral. Cada vez son más numerosos los valores patriarcales que se manifiestan entre las generaciones más jóvenes y las relaciones de poder entre personas de diferente sexo, y, al mismo tiempo, muchos jóvenes, utilizando la violencia, construyen relaciones desequilibradas entre ellos y ellas.

Tenemos que cambiar necesariamente el modelo de sociedad para poder terminar con la violencia. La única manera de que desaparezcan todas esas violencias, tanto macros como micros, es la de rechazar toda actividad que pueda justificarlas o apoyarlas.

Y este cometido, este compromiso a adoptar necesariamente, lo debemos adoptar todos los agentes que conformamos la sociedad; si no, continuaremos apoyando la violencia machista. Se trata de una responsabilidad de todos y todas hacerle frente desde el ámbito de influencia propio para poder acabar así con todo tipo de violencia machista: instituciones públicas, agentes educativos, medios de comunicación, agentes del ámbito laboral, agentes culturales, agentes económicos. Pero los individuos, las familias, las cuadrillas, los colectivos y los responsables públicos también tienen una responsabilidad directa.

También se deben aceptar y respaldar los diferentes modos de afrontar la violencia machista, ya que a pesar de constituir un único objetivo, los tipos de lucha deben ser diversos: la autodefensa feminista es una vía, pero la iniciativa Beldur Barik (Sin Medio) o las performances o las acciones callejeras que se han creado en el contexto de las fiestas de los pueblos, las actuaciones que se realizan en asociaciones y barrios, todas son iniciativas positivas, iniciativas a respaldar.

Por ello, en este día internacional en contra de la violencia machista, nuestras reivindicaciones a favor de una Euskadi feminista e igualitaria deben escucharse de manera más clara y rotunda, porque si no la construimos nos será imposible conseguir una democracia verdadera. Así, el Ayuntamiento de San Sebastián adopta el COMPROMISO siguiente:

**- El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián se compromete a desarrollar en el ámbito de sus competencias, una política municipal activa, integral y coordinada en favor de la igualdad de mujeres y hombres y de los buenos tratos.**

**- El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián ratifica el compromiso que tiene con la lucha feminista, como vía y herramienta para construir una sociedad democrática y soberana sin violencia.**

**- El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián se compromete en emplazar a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Gobierno Vasco para que aumenten las partidas presupuestarias para lograr la igualdad entre mujeres y hombres, refuerzen las direcciones de igualdad, adapten las unidades de género de los juzgados y adopten el compromiso de revisar la legislación.**

**- El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián invita a la ciudadanía a adoptar compromisos personales y colectivos a favor de la igualdad, todos y cada uno de los días del año, y a participar activamente en los diferentes actos que se lleven a cabo con motivo del 25 de noviembre, así como en el programa de prevención y educación para la igualdad entre la juventud 'Beldur Barik'.**

Miren Azkarate:  
(Portavoz de PNV-EAJ)



Ernesto Gasco:  
(Portavoz de PSE-EE)



Amaia Martín:  
(Portavoz de IRABAZI)



Miren Albistur:  
(Portavoz de PP)



Amaia Almirall:  
(Portavoz de EH BILDU)